

PLANIFIKAZIOA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA. IRAKASLEAK

15. TRESNA. HELBURUAK LEHENETSIZ ETA AUKERATUZ.

Diagnostikoa egin ondoren, zenbait indargune eta ahulezia antzeman ditugu. Jarraian, indargune gisa indartu behar diren edo hautemandako ahulgune gisa hobetu beharko liratekeen gaiak hautatu ditugu. Horiek guztiak birformulatu ditugu, helburutzat jotz, eta **egingarrientzat eta errealistentzat** jotzen ditugunak hautatu behar ditugu.

Helburuak lehenesten direnean, besteak beste, Hezkidetzaren zortzi zutabeak kontuan hartzea gomendatzen dugu:

1. Pentsamendu kritikoa sexismoaren aurrean.
2. Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista.
3. Emakumeen jakinduria eta haien ekarpen sozial eta historikoa txertatzea.
4. Gatazkak modu baketsuan eraldatzea, Hezkidetzako bizikidetzako proiektuen bidez.
5. Autonomia pertsonala eta independentzia ekonomikoa.
6. Ikastetxeko espazioak eta eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak.
7. Hezkuntza afektiboa eta sexuala berdintasunean.
8. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta aurrean jardutea

Gainera, aurretik aztertutako beste alderdi batzuk ere kontuan hartu beharko dira, hala nola:

- ikastetxearen antolakuntza eta kudeaketa;
- ikasgelako antolakuntza eta kudeaketa eta irakasle-estiloa;
- parte-hartzea eta ordezkariak.

Ez litzateke beharrezkoa izango gaikako bloke horiek guztiak behin bakarrik lantzea, hainbat ikastarotan elkarren segidan landu baitaitezke.

TALDE NOMINALAREN TEKNIKA

Pertsona bakoitzak helburu horiek hierarkizatu behar ditu, eta puntu bat eman behar dio garrantzi gutxien duenari, eta 2 puntu, berriz, garrantzi gutxien duenari, haren iritziz garrantzi handiena duen helburura iritsi arte. Horrela, 10 helburu izanez gero, garrantzi handiena ematen zaionak 10 puntu lortuko ditu, eta garrantzi gutxien duenak 1.

Parte-hartzaile guztien erantzunak jasoko dira. Puntuazio handiena lortu duten helburuak planifikatuko dira.

GAINERAKO HELBURUAK

HELBURUEN ZERRENDA	PUNTUAZIOA
1.	
2.	
3.	
4.	
5.	
6.	
7.	
8.	
9.	
10.	
HELBURUAK, GUZTIRA = GEHIENEO PUNTAZIOA, GUZTIRA	

Bozketa jasota, zenbaketa egiten da, eta helburu kopuru jakin bat lehenetsi beharko da. Helburu horiek hurrengo ikasturtean landuko dira, eta Urteko Planean ere jaso beharko dira. Kontuan hartu beharko da, halaber, helburu horietako batzuk Bizikidetza Planean, Antolakuntza eta Jarduera Araudian edo Tutoretzako Ekintza Planean jaso behar direla.